HAUR LITERATURA

Posta tradizionalari omenaldia

AZKEN GUTUNA
Idazlea: Antonis Papatheodoulou.
Ilustratzailea: Iris Samartzi
Itzulpena: Fernando Rey
Argitaletxea: Pamiela-Kalandraka, 2016
Orrialde kopurua: 44
Prezioa: 14€.

Lore AGIRREZABAL

Liburu bat eskuratu ordez, gutun bat jaso dudala iruditu zait "Azken gutuna" jasotzean. Gutizia-liburua iruditu zait Pamiela-Kalandrakak argitaratu berri duena, gainazal berezi batek estaltzen baitu. Gutun edo postaz bidaltzen den pakete marroi baten modukoa da eta sokaz lotuta dator. Liburua esku artean izan aurretik, gutun bat zabaltzeak sortzen duen zirrara eta jakin-mina eragiten du gainazal berezi hori kendu beharrak.

Barruan aurkituko dugun gutuna "Azken gutuna" da; Antonis Papatheodoulou (Atenas, 1977) eta Iris Samartzi (Atenas, 1979) idazle eta ilustratzaile greziarrek sortutako liburua; 2016an album irudidunentzako nazioarteko IX. Compostela Saria jaso duena. Pamiela-Kalandrakak argitaratu du Fernando Reyren euskarazko itzulpenarekin.

Liburuak Bazterra jaunaren azken laneguna kontatzen du. Egun oso berezia, nostalgia kutsu handikoa, Bazterra jaunarentzat. Izan ere, postaria da; gaur egun, desagertzeko arriskuan dagoen lanbidea da berea, eta, hori gutxi balitz, bizi den uhartean bera da postari bakarra, azkena. Izan ere, dagoeneko, bere lanbidea telefonoak eta posta elektronikoak ordezkatu dute ia erabat.

Bestelakoa zen Bazterra jauna lanean hasi zen garaia uharte hartan; postarien lana jendearen arteko komunikaziorako ia ezinbestekoa zen garaia. Urteetan bera izan zen bertako berri-eramaile nagusia.

Azken egun hartan, ordea, bere berria zen guztien etxeetara zabaldu behar zuena: erretiroa hartzera zihoala, hain zuzen. Baina egun hartan, herriko ate guztiak itxita aurkitu zituen. Zakutoa hustu zuen gutunak ate azpitik sartuz, baina ez zen inor gutuna jasotzera irten. Atsekabetuta eseri eta zakutoari azken begiratua ematean ohartu zen, gutun bat banatzea ahaztu zitzaiola, lehen aldiz 50 urtean. Baina azken gutun hura berezia zen, "Ondargorrieta" baino ez zuen jartzen azalean.

Istorio eder honekin idazleak omenaldi txiki bat egin nahi izan dio gutunak banatzearen ofizio zaharrari. Iris Samartziren ilustrazioek ere beste horrenbeste iradokitzen dute. Izan ere, collage moduan sortutako irudietan etengabe erabili ditu gutun-azalak, zigiluak, barra kodeak, kartoi zatiak, eskuz idatzitako lerroekin trazatutako pertsonen irudiak... Gutun-azal eta posta-paketeen kolore marroi-okrea, zeruaren urdina eta paperaren zuria dira gehien nabarmendu dituen koloreak. Liburuaren azalean, berriz, Bazterra jaunaren irudia ilustratu du zigilu baten barruan. Postariari egindako omenaldi txoa hori ere.

Hasieratik amaieraraino, bai testua eta bai ilustrazioak oso modu orekatsu eta armoniatsuan uztartzen dira. Hain zuzen, horixe azpimarratu zuen Compostela Sariko epaimahaiak ere saria "El último día" (Azken gutuna) izeneko lanari ematean. Ez da, baina, Antonis Papatheodoulouren lehen saria; 2011n eta 2012an Greziako Album Ilustratua Saria jaso zuen eta bere zenbait obra The White Ravens zerrendan agertu izan dira.

Iris Samartzi ere ilustratzaile saritua da. Hain zuzen, 2012an eta 2015ean Antonis Papatheodoulouk idatzitako liburu banari egindako ilustrazioekin IBBYren Greziako atalak banatzen duen Liburu Ilustratuaren Sari Nazionala eskuratu zuen.

Posta elektronikorik gabeko garaian jaiotakoak dira bi sortzaileak eta ederki asmatu dute gutunak banatzen dituen gremioari dagokion aitortza egiten.

Gabonak museoan!

¡NAVIDADES EN EL MUSEO!

San Telmo Museoan haurrentzako jarduera ugari aurkituko duzu Gabonetan.
En Navidades encontrarás muchas actividades infantiles en el Museo San Telmo.

Sormen tailerrak
Talleres de creación

ARTEAN MARA-MARA
Haurrentzako tailerra / Taller infantil
Abenduak 23 de diciembre
Urtarrilak 3, 4 de enero

Haur txikientzako sormen tailerrak. Arropa erosoa ekartzea komeni da. / Talleres creativos infantiles. Es recomendable traer ropa cómoda.
11:00, 17:00 | Euskaraz | 1-3 urte/*años* | 5€
Sarrerak salgai abenduaren 1etik 18ra
Entradas a la venta del 1 al 18 de diciembre

ARTEAN JAZZ
Haurrentzako tailerra / Taller infantil
Abenduak 28, 29, 30 de diciembre

Musika eta artearen arteko zubi bat eraikitzen duten hiru tailer ezberdin. Partaideek mural musikalak, collagea, hiru dimentsiotako musika edota mugikariak landuko dituzte. / Tres talleres diferentes que crean un puente entre la música y el arte. Los participantes harán murales, collages, música en tres dimensiones y elementos móviles.
10:30-12:30 | Euskaraz | 6-12 urte/*años*
Dohainik, lekuak bete arte
Gratuito, hasta completar aforo
Izen-ematea / *Inscripción*: 943 48 15 61, stm_erreserbak@donostia.eus

STM
San Telmo Museoa
Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián
T (00 34) 943 48 15 80
www.santelmomuseoa.eus
@santelmomuseo

donostia kultura

Ikuskizunak
Espectáculos

FUTBOLARIAK ETA PRINTZESAK, Eidabe
Haurrentzako antzerkia / Teatro infantil
Abenduak 27 de diciembre

Parekidetasunean eta berdintasunean hazi eta hezteko antzezlana. / Obra de teatro para crecer y educar en valores de paridad e igualdad.
17:30 | Euskaraz | 7-13 urte/*años*
Sarrera librea lekuak bete arte
Entrada libre hasta completar aforo
Ant. / *Org.*: Gazteria Bulegoa. Lag. / *Col.*: STM

A ZER NOLAKO HEROIAK
Haurrentzako zinema / Cine infantil
Urtarrilak 7 de enero

17:30 | Euskaraz | +4 urte/*años*
Doan | Gonbidapenak ordubete lehenagotik museoan.
Gratis | *Invitaciones desde una hora antes en el museo*
Ant. / *Org.*: Gazteria Bulegoa. Lag. / *Col.*: STM

Zure museoak gabonetan

ARTEAREKIN JOLASEAN
Abenduak 27 de diciembre

Erakusketa iraunkorrera bisita gidatua eta artelana sortzea koloreekin jolastuz. Jarduera hau Donostiako museoen *Zure museoak Gabonetan* ekimenaren barne dago. Gabonetan jarduera bat egongo da museo horietako bakoitzean. Jarduera sorta guztirako izen-ematea abenduaren 5etik 19ra egin daiteke. / Visita a la exposición permanente y creación artística jugando con los colores. Esta actividad se enmarca en la iniciativa *Zure museoak Gabonetan* de los museos de San Sebastián. La inscripción se realizará para el conjunto de las actividades, del 5 al 19 de diciembre.
10:30-12:30 | Euskaraz | 6-10 urte/*años* | 15€
Izen-ematea / *Inscripción*: 943 48 15 61, stm_erreserbak@donostia.eus
Informazio gehiago / *Más información*: www.santelmomuseoa.eus